



Sortez Garbiaren eliza (Elorrio)

1634an Gonzalo de Otálora y Guissasa historiagile durangarrak Elorrioko Sortez Garbiaren Eliza deskribatu zuenean esan zuen bai kuriositateari eta bai gorputzari dagokionean Europako eraikinik onenetarikoa zela.

Exajerazioak izan daitezkeen horiek aparte utzita eliza benetan da monumental eta eraikintzan elorriotarren hainbeste belaunaldik egin zuten lan, XV. gizaldiaren erditik -orduan hasi baitziren obrak- harik eta eliza konsagratu arte.

Eraikina

Eraikina, oro har, zutabedun euskal elizen eredurik behinetarikoa da (alemanez *hallenkirche* diren horietakoa alegia) ez estilo garbikoa delako, arestian aipatu dugun monumentalitate horregatik baizik.

Aipatzekoa da, bitxia delako, azken emaitza hori behin-behinean erabaki eta egin zen berreraikintza baten emaitza izatea. 1449an eliza gotikoa eraikitzen hasi ziren baina obrak motelegi zihoazen eta 1506an eredu errenazentistaren bidetik jo zuten, modernoagoa.

Elizaren oin-planoak hiru nabe ditu; bata erdikoa da, zabalagoa, eta beste biak, alboetakoak, estuagoak. Hiru tarte ditu eta erdian elizburu konplexuaren errematea du, hautsia eta nolabait trikonke itxurakoa.

Eraikintzako elementurik aipagarrienak, harlanduzko hormak ezezik, lau zutabe itzelak ditugu, kapitel korintiardunak alegia, estilo gotikoan egiten zen bezalako gurutzeria-gangaren tarteak eusten dituztelako. Gurutzeria euskal arkitektura osoko konplexu eta elastikoenetakoa da. Bitxitasunaren funtsa kapitelaren ohiko landaretza dekorazioaren ordez figura adierazgarriak egotean datza, buru ia groteskoak alegia.

Diego de Siloek ezarri zuen eredu gaztelarraren eskemaren ildotik, argia hegoaldeetik heltzen da, xehe-xehe eginda, taxuketa errenazentistadun puntu erdiko arkuak dituzten leihoetatik alegia.

Baorik dotoreena dorrean dago, seguruenik areto kapitular eta artxibategi izan zen gelan. *Lehio-estandarrea* da eta horixe da jaso zuen izena; dintelduna da eta oso apainduta dago.

Oso interesgarria da, halaber, nabean zabalera osoa atzematen duen korua. Horren arku behekatua herriko hargina zen Rafael de Garaizábalek 1623an gainditu zuen izugarriko erronka teknikoa izan zen.

Bi atarteak, bata plazakoa eta bestea oinetakoa, ia berdinak dira; zorroztuak eta abozinatuak, zutabetxoaren artean eta elementu gotiko ugaridunak, hala nola, atezango abozinatuak, arkibolta zorroztuak, tinpano hutsak eta bormatzeko konopioak.

Dorrea ere oso kalitate onekoa da eta eraikinaren oin-planoaren eskuineko behe angeluan dago. Horren fusteak, elizaren multzoaren teilatuaren garaiera gainditzen duenak eta, atal batean, kanpandorrearena ere bai, egitura prismatiko-koadranguluarra du. Oso adierazgarriak dira kolorezko apaingarriak, Andaluzian egoten direnen antzekoak, eta baita zortzialdeko errematea, non aldi berean pinakuloak ere baitauden.

Obran Pascual de Iturriza eta Andres de Mendraka maisuek lan egin ondoren, 1595ean gangako giltzarrien atal postizo landu itzel eta polikromatuak kokatu zituzten, Martín Ruiz de Zubiate eskultorearen lanak. Gero korua eta kanpandorrea eraiki zituzten; azken elementu hori 1672an bukatu zuten.

Altzariak


Eraikin bitxi honen barruan asko dira gauza ederrak. Adierazgarrienak elizan banatuta dauden errataulak dira. Izan ere, erretaula nagusia bera, osorik, eta alboetako osagarriak barroko aroko rokoko fasearen adibiderik ikusgarrienetakoa da Bizkaia osoan.

Halaber, garrantzitsua da San Gregorio Nacianenoren alboko erretaula, 1530eko klasizista estilokoa, bertan besteak beste San Andresen zizelan oso ona dagoelako. Elizaren albo horretan zurezko gurutzea -Errenazimentuko XVI. gizaldiko erdiko hamarkadetako artearen adibide aparta-, elizaren buruan dauden barroko bi ehun eta brontzezko bi atril errenazentista ere aipatu behar dira.

Bukatzeko, San Balentin Berriotxoakoaren ehorzketa -altare monumentu hain ikusgarri eta exotikoa dago; obra hori Manuel M. Smith eta Marcelino Arrupe arkitektoen lana da (1908) eta, besteak beste, Basterra eta Larrea eskultoreen eta Maumejean etxearen laguntza izan zuten.

Sortez Garbiaren Elizaren taxuketa Diego Martínez de Arce madrildarraren lana da eta Silvestre de Soria erretaula egile nafarra izan zen 1754tik aurrera garapenaren arduraria hartu zuena. Eskulturaren arloko lanak Antonio de Hontañonek egin zituen, kantabriarra bera, eta pintura lanak Antonio Ximenez Echebarriak, Arrasatekoak burutu zituen.

Testua: J. R. Valverde.



Sortez Garbiaren eliza

Elorrio. (*Gernikako Arbola Plazan, hirigunearen erdian*).

Bisitak egiteko ordutegia:

9.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Elorrio)

- Tola jauregia. (*San Juan kalea*).
- Udaletxea. (*Gernikako Arbola Plaza*).
- Jara etxea, (*Berriotxo kalea (parrokia ondoan)*)
- Arespakotxaga - Mendibil etxea. (*San Pio X.a kalea*).
- Esteibar - Arauna etxea (*Utarka kalea*).
- Igarza etxea. (*Gernikako Arbola Plaza*).